

## **KONTROL MOZIOA**

### **Publizitate pertsonalerako diru publikoa ez erabiltzeari buruzkoa**

Jabier Vitoria Roma EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko martxoaren 16an Zerbitzu Orokorreko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Azkeneko aste hauetan, donostiarrok Udalaren proiektuei eta Jon Insaustiren proposamenei buruzko publizitate asko jasotzen ari gara formatu ezberdinetan. Zalantzak sortzen zaizkigu hauen guztien gainean.

Horregatik interpelatu genuen Jon Insausti alkatea martxoaren 16an. Ana Lopez, Gobernantzako zinegotzi-delegatuak, erantzun zuen Alkatearen ordezkari, eta datu asko eta zehatzak eman zituen etxe banatu den "Donostiarra" aldizkarian zentratuz: zenbat ale inprimatu diren; zenbateko kostua izan duen maketazioak, inprimatzeak, banatzeak eta abar; edo ze nolako lehiaketa egin zen.

Baina ezer gutxi esan zuen egindako beste galderari buruz. Eta honek kezkatzen gaitu, diru publikoaren kudeaketa besteak beste gardena behar duelako izan.

Jon Insaustiren izenean, bere logoarekin eta ez udalarenarekin, zabaldu dira hainbat proposamen edota albiste. Garbi dago, hau publizitate eta marketin pertsonala dela, eta ez instituzionala. Zalantzak genituen eta ditugu, batzordean ez zelako inolako zehaztapenik eman finantzaketari buruz.

Ulertzen dugu alderdi politiko guztien helburu partekatua dela ondo bereiztea ekimen instituzionalak eta pertsonalak, eta beharrezkoa ikusten dugu Udalbatza honek hau berrestea.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL-MOZIOA** aurkezten du:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Alkatearen irudi pertsonalaren mesedetan egiten den publizitatea, bere izen propioarekin egiten dena, ez ordaintzea diru publikoarekin.

Donostian, 2026ko martxoaren 20an

Jabier Vitoria Roma  
**EH BILDU udal taldeko zinegotzia**